



GIDA

LAUDIO

ikastola

orokorra

**(LIBURUXKA HONETAN
ATERATZEN DIREN
ARGAZKI GUZTIAK
LAUDIO IKASTOLAKO
GELETAN ATERA DIRA.
BERTON AGERTZEN DIREN
JARRERAK EGUNEROKO
EKIMENAK DITUGU GURE
IKASTOLAN).**

Argazkiak: Optura argazkigintza

Mila esker argazkietan agertzeko
baimena eman diguzuen guztiei.

1.- GURASOAK - KOOPERATIBA	9
1.1.- IKASTOLA-KOOPERATIBA	10
1.1.1.- IKASTOLEN ELKARTEA	13
1.1.2.- HERRI ONURA	15
1.1.3.- ERKIDE	16
1.2.- EGITURAKETA	18
1.3.- PARTAIDETZA	22
1.3.1.- FOROAK	22
1.3.2.- INFORMAZIO KANALAK	24
1.3.3.- ARRETA ZUZENA	27
1.4.- LAN KOOPERATIBOA	28
1.4.1.- AUZOLANA	28
1.4.2.- JANTOKIKO TXANDA	29
2.- HEZKUNTZA	31
2.1.- HEZKUNTZA PROIEKTUA	32
2.2.- HEZKUNTZA ESKAINTZA	36
2.2.1.- HAUR HEZKUNTZA	38
2.2.2.- LEHEN HEZKUNTZA	44
2.2.3.- DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA	50
2.2.4.- BATXILERGOA	56
2.3.- ORIENTAZIOA	60
2.3.1.- LAN EREMUAK	62
2.3.2.- FUNTZIONAMENDUA	64

2.4.- EUSKARA	66
2.5.- ELEANIZTASUNA	68
2.6.- IKASTOLA JASANGARRIA	72
2.7.- INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK	74
2.7.1.- HELDUTASUN TEKNOLOGIKOA	74
2.7.2.- BALIABIDEAK	75
3.- ADMINISTRAZIOA - ZERBITZUAK	79
3.1.- MATRIKULA	80
3.2.- IDAZKARITZA	82
3.3.- KUOTA SISTEMA	84
3.4.- BEKAK	86
3.4.1.- EUSKO JAURLARITZA	86
3.4.2.- BARNE BEKAK	88
3.5.- ESKOLA ASEGURUA	90
3.6.- JANTOKIA	92
3.6.1.- FUNTZIONAMENDUA	92
3.6.2.- KUOTA	95
3.7.- ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK	96
3.8.- GARRAIOA	98
3.9.- ZERBITZU ASISTENTZIALA	100



IKASTOLA BIDE LAGUN



GURASOAK - KOOPERATIBA



IKASTOLA- KOOPERATIBA

Zein da Ikastolaren lege izaera?

IKASTOLAREN KOOPERATIBA IZAERA

1971 URTEAN SORTUTAKO KOOPERATIBA DA LAUDIO IKASTOLA. GAUR EGUN BERE FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DUTEN ESTATUTUAK 1995EKO EKAINAREN 15EAN BATZAR OROKORRAK ONARTUTAKOAK DIRA, KOOPERATIBEN LEGEDIAK EZARRITAKOARI EGOKITUTA DAUDE.

Estatutuen 2. artikulua Kooperatibaren helburua zehazten du:

1.- ELKARTEAREN HELBURUAK IKASLEEI HEZKUNTZA INTEGRALEKO ZERBITZUAK ESKAINTZEAN DATZA.

Hezkuntza hau euskaraz burutuko da, heziketa metodo eguneratuekin garatutakoa, irakasleriaren talde lan arduratsuaren bidez. Honez gain pluralista eta Euskal Herriko ideia, balore, giza, politiko eta erlijio aniztasunarekin adeitsua izango da.

2.- KOOPERATIBAREN HELBURUAK HEZKUNTZA JARDUERA JAKINTZAREN ETA PRESTAKUNTZAREN EDOZEIN ADARRETAN BERE MAILA, ETAPA, ZIKLO, GRADU ETA MODALITATE EZBERDINETAN GARATZEAN DATZA:

A.- ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK ZEIN OSAGARRIAK antolatu ahal izango dira, eta hezkuntza jarduera errazten duten eskola zerbitzuak eman.

B.- IKASLEEN HEZIKETA EUSKALDUNAREN GARAPENA, euskara eta euskal kulturaren garapen eta pizkundearen transmisioan jarrera aktiboa gara dezatela ahalbideratuko da.

C.- EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA BULTZATZEKO helburuaz Euskal Herriko ikastolek eratutako organismoetan parte hartu eta indartuko da.

D.- HEZKUNTZAN ZUZENKI INPLIKATUTAKO

kolektiboek ikastolaren funtzionamenduan parte har dezatela bultzatuko da, partaidetza formulak proposatuz.

E.- ZIO SOZIALA GESTIO DEMOKRATIKOA ETA PARTAIDETZAREN BIDEZ GAUZATUKO DA,

Ikastola osatzen duten estamentu guztietara helduz, zentroaren autonomia gutxitu gabe eta Euskal Herriko Hezkuntza Proiektu propioa bultzatzen duten ikastolen kolektiboarekin elkarlanean.

F.- AURREKO LERROALDIETAN AIPATURIKO ELKARLANA KALTETU BARIK,

Kooperatiba bestelako edozein erakunde edo entitate publiko zein pribaturekiko autonomia eta independentzia osoz arituko da.

Zein da beste ikastolekiko harremana?

IKASTOLEN ELKARTEA

IKASTOLEN MUGIMENDUAN TXERTATUTA LAUDIO IKASTOLA IKASTOLEN MUGIMENDUAREN PARTAIDEA IZAN DA HASIERATIK, 1975ETIK IKASTOLEN ELKARTEKO PARTAIDE GARELAKO ETA KOLEKTIBO HONEN FORO ETA EGITURETAN PARTE HARTZEN DUGULAKO.

Ikastolen mugimenduan txertatua egoteak sare zabal batean lan egitearen abantaila guztiak ematen dizkigu: Administrazioen aurrean babesa, metodologia aurreratuenetan aitzindariak izatea, guk geuk ikasmaterialak sortzea, irakasleen eta administrarien etengabeko prestakuntza, proiektu berritzaileetan esku hartzea...

Ikastolak Euskal Herri osoa hartzen duen erakundeetan bilduta daude. Erakunde honek europar kooperatiba eredua hartzen du.

Hauxe da erakundearen administrazio-izena: Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba Elkarteak.
Gizarte harremanetarako izena: Ikastolen Elkarteak.

Zer da 'europar kooperatiba':

- Europako Batasunak ebatzitako zuzentarau bati jarraiki mugaz gaineko kooperatibak ahalbidetzen dituen eredia da.
- Hego Euskal Herriko ikastola guztiak kooperatibak dira. Iparraldeko ikastolak ez dira kooperatibak.
- Euskal Herriko ikastola bakoitza da Ikastolen Elkarteko bazkidea.
- Euskal Herri mailan mugaz gaineko aitortza administratiboa daukan erakunde sozial bakarra da.
- Europar Batasunean sortutako bigarren europar kooperatiba da.



*NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEA

**IPAR EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN ELKARTEA

HERRI ONURA IZENDAPENA

1999KO EKAINAREN 15EAN, LAUDIO IKASTOLAREN BATZAR OROKORRAK KOOPERATIBAREN LEGEDIAK EZARRITAKO BALDINTZETARA EGOKITU ZITUEN ESTATUTUAK HERRI ONURA IZENDAPENA ESKURA ZEZAN.

2000ko maiatzaren 12az geroztik Herri Onura izendapena du Laudio Ikastolak Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Saileko Gizarte Ekonomiarako zuzendaritzak emana.

Izan ere herri onura izendapenaren bidez Eusko Jaurlaritzak Laudio Ikastolaren hezkuntza jarduera, Autonomia Erkidegoaren interes orokorrekoa eta irabazi asmorik gabekoa dela aitortzen du. Laudio Ikastola herriaren eta herritarren zerbitzura dagoela eta zerbitzu publiko bat eskaintzen duela, alegia.

ERKIDE

EUSKADIKO LAN ELKARTEEN, IRAKASKUNTZA ETA KREDITU KOOPERATIBEN FEDERAZIOA DA. LAUDIO IKASTOLA, IRAKASKUNTZA ARLOKO BESTE KOOPERATIBEKIN BATERA, ERKIDEREN BAZKIDEA DA.

Bere xede nagusien artean Lan Elkartuko Kooperatiben sektoreko erakunde ordezkaritza, defentsa eta sustapena burutzea ditu. Horrez gain informazio eta aholkularitza teknikoa, prestakuntza eta bestelako zerbitzuak eskaintzen dizkie bere partaideei.

IRAKASKUNTZA ARLOKO TALDEA

Irakaskuntzako Kooperatiben Taldea Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatiba-titularitateko ikastetxeak ordezkatzan dituen erakundea da, eta 2007ko martxoaren 7an sortu zen legez, nahiz eta aurrez ere bazuen ibilbide bat egina.

Gaur egun Irakaskuntzako 80 Kooperatiba daude bertan, eta horietan 64.515 ikasle, 4.854 irakasle, 1.129 irakasle ez direnak eta 5.983 lanpostu.

Elkartearen helburu nagusia Irakaskuntzako Kooperatiben interesen adierazpide izatea da. Horrez gain Irakaskuntza Kooperatiben garapena sustatu nahi du taldeak, parte hartzea bultzatuz eta ERKIDERen politika orokorraren diseinuan eta garapenean lagunduz.



EGITURAKETA

LAUDIO IKASTOLA KOOPERATIBA IZAERA DUENEZ GERO, ERABAKIAK HARTZEKO LAN TALDEETAN ANTOLATZEN DA. BERTAN, GURASO, IKASLE ETA LANGILEAK ZUZENENAN ZEIN ORDEZKARIEN BIDEZ PARTE HARTZEN DUTE.



BATZAR OROKORRA

Ikastolako erabakimen organo gorena da.

Urtero biltzen da ohiko deialdian eta ez-ohiko deialdian, hala beharrezkoa denean.

ARTEZKARITZA KONTSEILUA

Batzar Orokorrak hautatzen du. Batzar Orokorraren erabakiak eta Urteko Plana betearazteaz arduratzen da. Bere partaideen artean Lehendakaria eta arduradunak hautatzen ditu. Zuzendaritza Taldearen aholkularitza du.

ZUZENDARITZA TALDEA

Urteko Plana eta Ikastolaren eguneroko martxa zuzendu, betearazi eta ebaluatzeaz arduratzen da.

KLAUSTROA

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan oinarrituta, Ikastetxeko Curriculum Proiektu planifikatu, kudeatu, egikaritu eta ebaluatzeaz arduratzen da.

ETAPAK

HH, LH eta BH etapa bakoitzeko Urteko Plana landu, egikaritu eta ebaluatzen dute Zuzendaritza Taldeko partaide diren Ikasketa Buruen bidez.

IKASLEEN ORDEZKARIAK

Ikasgela bakoitzak bere ordezkariak aukeratzen ditu.

Gelako ordezkariak ikasleek nahi eta beharrak jaso eta tutoreei edo zuzendaritzari eramatean dizkiete.

Horrez gain, Bigarren Hezkuntzako ordezkariak Ebaluazio Saiotara euren balorazioak eraman eta Eskola Kontseiluan parte hartzen dute.

ARTEZKARITZA KONTSEILUKO BATZORDEAK

Programa, eremu edo jarduera zehatzetarako lan taldeak: planifikazioa, garraioa, jantokia, matrikulazioa, euskara, eskolaz kanpoko ekintzak...

ESKOLA KONTSEILUA

Ikastolako Ordezkaritza Organo Gorena eta Artzezkari-tza Kontseiluaren osagarria. Izan ere, Laudio Ikastola gurasoen kooperatiba izateaz gain, hezkuntza komunitatea ere bada. Beraz, hezkuntza alderdiei lotutako hainbat erabakiak hartzeko eta gai horiei buruzko eztabaida gune izateko ikasle, guraso, irakasle, langile ez irakasle eta Ikastolaren titularren ordezkariak biltzen dituen organoa da.



PARTAIDETZA

IKASTOLAKO PARTAIDETZA FOROAK

FAMILIEN LANKIDETZA EGUNEROKO
FUNTZIONAMENDUAN:

IKASTOLAREN FUNTZIONAMENDUAK
PLANTEATZEN DITUEN ERABAKI NAGUSIAK
KOOPERATIBA EGITURAKETAK EBAZTEN
DITU ETA BERTON FAMILIEK DUTE HITZA ETA
ERABAKIA.

Batzar Orokorrean adosten dira urteroko lanaren ildo nagusiak eta ondoren, egunerokoan, Artezkaritza Kontseiluan, Eskola Kontseiluan edo batzorde ezberdinetan bideratzen dira.

Jarduera pedagogikoari dagokionez, ikasmilako guraso bilerek informazio eta kontrasterako foroa eskaintzen dute. Formakuntza aukerak ere eskaintzen zaizkie familiei hezkuntza jardunaldi, guraso eskola eta hitzaldien bidez.

GELAKO GURASOEN ORDEZKARIAK

Ikastolako komunitate osoaren arteko komunikazioa erraztea eta eguneroko funtzionamenduan partaidetza areagotzeko helburuarekin, ikastalde bakoitzeko Gurasoen Ordezakariak izendatzen dira, Guraso Ordezakarien Batzarraren bidez Ikastolako Artezkaritza Kontseiluarekin elkarlanean aritzen direnak.

Ordezakarien zeregin nagusia beraien gelako gurasoen artean informazioa zabaltzea eta ikasturtean zehar sortzen diren ekimen ezberdinetan partaidetza dinamizatzea da.

INFORMAZIO KANALAK - FAMILIEKIN KOMUNIKATZEKO PROZEDURAK

GURASO ETA IKASLEEKIN KOMUNIKATZEKO HAINBAT PROZEDURA ETA BIDE DITU IKASTOLAK. PROZEDURA ETA BIDE HORIEN HELBURUA FAMILIA ETA IKASLEEKIN INFORMAZIOA ELKARTRUKATZEA ETA BERAINGANDIK IRITZI, PROPOSAMEN ETA HOBEKUNTZAK JASOTZEA DA.

Bi motako komunikazio kanalak bereizten ditugu:

1.-INFORMAZIO PERTSONALA

Eguneroko gorabeheren komunikazioa da.

Egunerokoan gertatzen den edozer lehenbailehen jakinaraztea oso inportantea da, bai Ikastolan irakasleek behatutakoa, bai etxean gertatu eta tutoreak jakin beharrekoa, esate baterako, gaixotasunak, istripuak, portaera arazoak... Holakoetan kanal zuzenena telefonoa da. Bestelako bideak dira ohar idatziak edota ikaslearen agenda. Kasu guztietan helburua informazioa modu azkarrean helaraztea da.

-TUTORE-GURASO ELKARRIZKETAK

Ikasturtean zehar, beharrezkoa denean, tutore, guraso eta ikasleak elkartu egiten dira ikasturtea nola doan komunikatzeko eta egon daitezkeen arazoak bideratzeko.

-EBALUAZIO TXOSTENAK

Oro har, ebaluazio bakoitzaren amaieran, ikaslearen kalifikapenak eta bestelako balorazioak jasotzen dituzten ebaluazio txostenak jaulkitzen dira.

-ALEXIA PLATAFORMA

Ikastolaren barruko komunikaziorako tresna digitala da. Bertan familiak ikasleen ebaluazio txostenak eta ikastolako fakturazioa kontsulta dezakete.

2.- INFORMAZIO OROKORRA

-IKASMAILAKO BILERAK

Ikasturtearen aurkezpena, balantzea eta datorren ikasturteari begirako orientabideak eskaintzeko asmoz antolatzen dira.

-ZIRKULAR INFORMATIBOAK

Ikastolaren egunerokoan sortzen diren gaien berri ematen dute: Eskolaz Kanpoko Ekintzak, jantokia, garraioa, bekak, ekintza puntualak... posta elektronikoz eta Alexia plataformaren bidez bidaltzen dira.

-IKASTOLA ALDIZKARIA

Ikastolen Elkarateak argitaratutako hilabetekaria da. Ikastolen mugimenduaren jarduerari buruzko informazioa ematen du.

-INFORME OROKORRAK ETA BARNE BULETINAK

Batzar Orokorretarako prestatzen dira. Kooperatibak organo honen bidez aztergai izaten dituen gaien inguruko informazioa ematen du: ekonomia, Artezkaritza Kontseiluaren osaketa, proposamen berriak... Era berean, asebetetze inkesten laburpena eta barne buletinak banatzen dira: ikasturterako eskolaz kanpoko ekintzen egitaraua eta Laudio Txikiko gela bakoitzerako argibide zehatza -Seaska, Katuka eta 2 urteko egokitzapena-.

-IKASTOLAREN WEB GUNEA: WWW.LAUDIOIKASTOLA.EUS

Bertantxe duzue gida honetan azaltzen zaizun guztia eta Ikastolak argitaratzen dituen guraso ohar, menu orri eta txostenak. Horrez gain, aldiro-aldiro, Ikastolan sortutako albisteak edo egindako eta programatutako ekintzen irudiak eskaintzen ditu. Bisita ezazu.

-SARE SOZIALAK

ARRETA ZUZENA

FAMILIEN LANKIDETZA EGUNEROKO HOBEKUNTZAN:

Ikastolako langileok gure lana ahalik eta ondoen egiten saiatzen gara, baina, logikoa denez, zer hobetu badugu. Ikastolako zerbitzuen erabiltzaile zaretenok etengabeko hobekuntzan paper garrantzitsua jokatzen duzue, egiten dituzuen iradokizun eta kexen bitartez. Horiek jaso eta bideratzeko sistema ezarrita daukagu ikastolan:

Lehenengo eta behin, kexa edo iradokizuna dagokion gai edo arloaren arduradunari aurkezten zaio: alderdi pedagogiko edo akademikoari lotutakoen kasuan, tutoreari; garraio, administrazio edo eskolaz kanpoko ekintzei buruzkoak, idazkaritzan; jantokiari buruzkoak jantokiko arduradunari.

Iradokizun edo kexak arduradun zuzenen eskumena gainditzen badu edo aurreko mailetan behar bezalako erantzuna jaso ez duzuela uste baduzue, kexa edo iradokizuna ikasketa buruei, Artezkaritza Kontseiluko kideei edo zuzenean zuzendari orokorrari bidali ahal diezue. Azken honi zuen iradokizun edo kexa bidaltzeko idazkaritzara ekarri edo posta elektronikoaz bidali:

zuzendaria@audioikastola.eus

Jasotako kexa eta iradokizun guztiei ahalik eta eperik laburrenean (aste bete) erantzuteko konpromisoa hartzen dugu. Batzuetan arazoak ez du berehalako soluziorik. Kasu horietan ere gaiari emango zaion trataeraz informatuko zaituztegu.



LAN KOOPERATIBOA

AUZOLANA

IKASTOLAREN IZAERAN, HEZKUNTZA GURASO KOOPERATIBA BEZALA MANTENDU NAHIAN, FAMILIA GUZTIEK IKASTOLA PROPIO BIZI BEHAR DUTE.

Ikastolako mantentze-lanek xede hau gauzatzeko aukera ematen dute auzolanaren bidez eta gainera ikastolako kuotek suposatzen duten zama arintzeko aukera ere badira.

Hortaz, Auzolanak Ikastolako mantenuarekin harremana duten lanetan laguntzeko aukera ematen du antolatutako lan txanda ezberdinen bidez, eta horrela inbertsio kuota berreskura daiteke.

Mantentze-lanetarako auzolan txandak margotze lanak, lorategien zaintza, jolas tokiak, e.a. mantentzeko erabiltzen dira. Ikasturte hasieran txanda hauetan parte hartzeko deialdia burutzen da eta bileran bertan urte osoko plangintza eta egutegia zehaztuko da, jendearen trebezia eta nahiak kontuan izanik. Ikastola arduratuko da txanda horiek aurrera eramateko materialaz.

Auzolanean aritutako familiek ikasturteari dagokion inbertsio kuota osoa edo zati proportzionala berreskuratzen dute emandako lan ordu kopuruaren arabera.

JANTOKIKO TXANDA

JANTOKI ZERBITZUAK ERE AUZOLANEAN ARITZEKO AUKERA ESKAINTZEN DU LAGUNTZAILE TXANDAREN BIDEZ.

Jantokia darabilten familia guztiei jantokiko eguneroko garbiketa lanetan parte hartzea helburu duen txanda egitea egokitzen zaie ikasturtero. Txanda bete ezean, kuota osagarri bat ordaintzen dute.

HEZKUNTZA



HEZKUNTZA PROIEKTUA

XXI. MENDERAKO HEZKUNTZA PROIEKTUA ERAIKITZEN ARI GARA.

LAUDIO IKASTOLA 1971. URTEAN HERRI MUGIMENDUTIK EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA HEZKUNTZA ESPARRUAN SUSTATZEKO LAUDION SORTUTAKO GURASO KOOPERATIBA DA. EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KOLEKTIBOAREN EGITURAN PARTE HARTZEN DU ETA GAINONTZEKO IKASTOLEKIN BATERA ESKOLA EREDU PROPIOA PROIEKTU ETA CURRICULUMA BULTZATZEN ETA PARTEKATZEN DITU.

Ikastolen mugimenduan txertatua egoteak sare zabal batean lan egitearen abantaila guztiak ematen dizkio: metodologia aurreratuenetan aitzindariak izateak, ikasmaterialen ekoizpena, etengabeko prestakuntza, proiektu berritzaileetan esku hartzea, ...

Ikastolen Elkarteak Euskal Herriarekin, Euskararen Herriarekin identifikatzen du bere jarduera-esparrua, muga administratiboetatik haratago.

Ikastolaren jarduera esparrua Laudio herriaren mugak gainditu eta eskualde osora hedatzen da. Itunpeko ikastetxea baina zerbitzu publikoa da ematen duena. Hezkuntza esparrua eraldatzeko prest dago eta horretarako eredu propioa defendatzen du. Euskal Curriculumua du oinarri eta Euskal balore eta ohituren sustatzailea da.

GURASO, IKASLE ETA LANGILE ANITZEZ OSATUTAKO PROIEKTUA DA LAUDIO IKASTOLA. GUZTION ARTEA 0-18 URTE BITARTEKO HEZKUNTZA EUSKALDUNA ESKAINTZEN DUGU, GIZA BALOREETAN ETA TREBETASUN SOZIALETAN OINARRITUA,

plurala, aniztasunarekin adeitsua izango dena. Ikastola akonfesionala, eleanitza, irekia eta solidarioa da, jendearengandik hurbila.

Euskal kultura bultzatzen dugu eta herriak antolatzen dituen hainbat ekitaldietan parte hartzen dugu, besteak beste, danborrada, inauteriak, Olentzero, e.a. eta hauen antolaketan herriko beste eragileekin elkarlanean dihardugu. Euskararen erabilera indartzeko lanean etengabe jarraitzen dugu.

Urte mordoan Hezkuntza eraldatzen dabilen proiektua da Laudio Ikastola euskara sustatuz eta hezkuntza sistema hobetzeko asmoz. Hori dela eta, 2015. urtean, Hezkuntza Proiektua berritzeari ekin genion, herriari, ikasleei zein gurasoei XXI. mendeko hezkuntza zor baitiegu.

Gaur egun Hezkuntza Proiektua berritzen gabiltza eta lanak bukatzeaz baditugu ere, arestian esandako gauza guztiez aparte hainbat hitz eta kontzeptu berri Hezkuntzan txertatu beharrean ikusten gara.

Ikasleak hezkuntzako edozein etapa bukatzean izan behar duen irteera profilaz hitz egin beharra ikusi dugu:

**IKASLE EUSKALDUNAK, KRITIKOAK, AUTONOMOAK
SORTZAILEAK, EZ-SEXISTAK, ANITZAK NAHI
DITUGU, GAUR EGUNGO GIZARTEAN BIZI ETA
PERTSONA BEZALA GARA DAITEZKEEN GIZAKIAK
AZKEN FINEAN.**

Gure Hezkuntza Proiektuan hizkuntzen tratamendu integratua islatua gelditu behar da, euskalduna eta eleanitza, baina beti ere, euskara Ikastolako eremu guztietan komunikazio-hizkuntza bezala azpimarratuz.

GURE HEZKUNTZA PROIEKTUAK PARTAIDETZA ETA LANKIDETZA IZANGO DITU OINARRI: TOLERANTZIA, ERRESPETUA, TALDE LANA, IDEIA TRUKAKETA, KUDEAKETA DEMOKRATIKOA, INPLIKAZIOA ETA PARTE-HARTZEEN BIDEAK ERRAZTUKO DITUENA.

Era berean, hezkuntza ekitatiboaz hitz egingo dugu, non ikasleek pertsona desberdinak, sexu, arraza edota erlijio desberdinetakoak, errespetatzen ikasten duten. Inklusibotasunari buruz ere jardun behar gara, bazterketa jokabideak ekidituz eta ikasle-guraso zein langile aniztasuna errespetatuz.

IKASTOLA BERRITZAILEA NAHI DUGU, TEKNOLOGIA BERRIAK IKASLE-FAMILIEN ZERBITZURA JARRIZ ETA LANKIDEEN ESKURA METODOLOGIA BERRITZAILEAK JARRIZ.

Ikastola Jasangarriaren kontzeptua indartu nahi dugu, izan ere gure Ikastolak eta ikasleek natura errespetatzen ikasi behar dute. Gure ikasleen seme-alabek natura gaur egun ezagutzen dugun bezala gozatzeko eta bizitzeko aukera ere etorkizunean izan dezaten.



HEZKUNTZA ESKAITZA

0-18 URTE BITARTEKO HEZKUNTZA ESKAITZA

LAUDIO IKASTOLA IKASTETXE INTEGRAL BAT DA, HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOTIK BATXILERGORAINOKO HEZIKETA IBILBIDEA ESKAINTZEN DUENA. HORREK ESAN NAHI DU LAU HILABETEEKIN HASTEN DEN HAUR BATEK 18 URTEREKIN AMAI DEZAKEELA, BATXILERGOA EGIN ETA GERO.

Honek, noski, abantaila asko ditu: Hezkuntza Proiektuaren koherentzia ziurtatzen da, hezkuntzaren xedeak, baloreak eta metodologia bat datoz; etapa desberdinetan zehar ikasleak izango dituen tutore eta irakasleen arteko koordinazioa errazten da eta ikaslearen jarraipen egokia bermatzen da. Gainera, haurrak txikitatik egin dituen lagunekin harremanak sakontzeko aukera izango du, garapen afektibo-emozionalerako oso egokia dena.

Hau guztia ez da soilik ikastolako esparruan garatzen, ikastolatik kanpo ere heziketa integral honek jarraitzen du ibilaldi eta barnetegiei esker. Ikasturtero ikastolatik kanpo burutzen ditugun ekintzak dira. Hauek gelan landutako edukiekin bat egiten dute eta baita ikastolako helburuekin ere.



HAUR HEZKUNTZA - HH

0-6 urte





HAUR
HEZKUNTZA

LEHEN
HEZKUNTZA

DERRIGOR.
BIGARREN
HEZKUNTZA

BATXI
LER
GOA

0-6
URTE

6-12
URTE

12-16
URTE

16-18
URTE

HAUR HEZKUNTZA HAURRAREN LEHEN URTEAK, HILABETEAK DITUENETIK 6 URTE BITARTEAN, BILTZEN DITUEN ESKOLA ETAPA DA.

2 zikloetan banatzen da, 0 eta 2 urte bitarteko haurrak biltzen dira lehenengoan eta 3 urtetik 6 bitartekoak bigarreanean.

**HAUR HEZKUNTZAK BERE BIZIKO GARRANTZIA
DU HAURRAREN GARAPEN OSOAN. ETAPA
HONETAN GARATZEN HASTEN DIRA
ADIMENAREN GAITASUNAK, NORTASUNAREN
EZAUGARRIAK, GORPUTZAREN AHALMENAK,
ETA GIZARTERATZEKO ETA HARREMANETARAKO
HASTAPENAK.**

Lehen urte hauetan familiak zeregin handia du, ikastolarekin batera, haurraren hezkuntzan. Hortaz, Laudio ikastolako proiektuan zehatz adierazten dira gurasoekiko harremana, elkarlana eta interbentzioaren nondik norakoak.

Bidelagun garen praktika pedagogikoaren oinarriak dira, besteak beste, jarduera-ekintza, jolasa, behaketa eta esperimentazioa. Eta horiek guztiak ikastolan bakarka zein taldeka egitekoak dira.

KONFIANTZAREN PEDAGOGIA DA GURE JARDUN PEDAGOGIKOAREN ARDATZA.

Haurrak zailtasunak kudeatu eta bere gaitasun guztiak garatu ahal izateko, konfiantza izan behar du bere buruarengan, besteengan eta inguratzen duen espazioarengan. Beraz, konfiantza hori eraikitzen laguntzeko baldintza egokiak sortzea da ikastolako hezitzaileen egiteko nagusia. Premisa hori du oinarrian Haur Hezkuntzak eta horretarako, haurren zaintza eta behaketa gakoak izango dira, baita espazioak zein baliabideak ere proiektu pedagogikoaren zerbitzura jartzea.

HAUR HEZKUNTZAN IKASKUNTZA AKTIBOAREN OINARRI NAGUSIA JOLAS AUTONOMOA DA. UMEAK BERE LEHENENGO URTEETAN ESPLORATZAILEA IZANIK, JOLASAREN BITARTEZ UKITZEN ETA IKERTZEN DU. HORREZ GAIN, GORPUTZ OSOA ERABILIZ, BIZI, SENTITU, IKASI ETA ADIERAZTEN DA.

Egitasmo honen ondorioz Ikastolaren eremu fisikoa gainditu eta irteera eta barnetegien bidez (5 urtetan) gure inguru natural eta urbanoan murgiltzen gara gelan landutako edukiak lantzeraz.

Izan ere, umearen hurrengo urteetan, bere hezkuntza ibilbidean, bere buruarengan, besteengan eta inguruarengan konfiantza izaten lagunduko dugu. Horrela bere gaitasunak ahalik eta ondoen garatu ahal izango ditu, hori baita helbururik garrantzitsuena.

Konfiantzaren Pedagogia beste proiektu batzuekin uztartzen dugun oinarri irekia da, esate baterako, psikomotritzitatea, familia esparruan irakurzaletasuna sustatzea helburu duen “Bularretik mintzora” ekimena, ingelesa edo teknologia berriak.



Etengabeko prestakuntzak elikatzen duen irakaskuntza aktiboa garatzen dute Ikastolako hezitzaileek. Gure proiektua berrikuntza korrante pedagogiko eta ideologiko ezberdinei buruzko hausnarketa, ikerketa eta prestakuntzan oinarritutakoa da, besteak beste, Emmy Pikler-ek Lóczy Eskolan edo Loris Malaguzzi-k Reggio Emilia Eskolan abiatutako berrikuntzak.



LEHEN HEZKUNTZA - LH

6-12 urte





HAUR HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	DERRIGOR. BIGARREN HEZKUNTZA	BATXILER GOA
0-6 URTE	6-12 URTE	12-16 URTE	16-18 URTE

6-7 URTE	7-8 URTE	8-9 URTE	9-10 URTE	10-11 URTE	11-12 URTE	12-13 URTE	13-14 URTE	14-15 URTE	15-16 URTE
LH1	LH2	LH3	LH4	LH5	LH6	DBH1	DBH2	DBH3	DBH4
1. zikloa			2. zikloa						
DERRIGOREZKO LEHEN HEZKUNTZA						DERRIGOREZKO BIGARREN HEZKUNTZA			

ONARRIZKO HEZKUNTZA

LEHEN HEZKUNTZA 6-12 URTEKO TARTEA HARTZEN DUEN ETAPA DA. 2 ZIKLOTAN BANATZEN DA, BAKOITZAK 3 MAILA DITUELARIK.

Lehen Hezkuntzaren oinarrizko xedea haurren garapen pertsonala bultzatzea da gizarte-taldean integra dadin, bertan era autonomo eta sortzailean jardunez. Etapa honetan ikasleak bere gorputza ezagutu eta baloratuko du, osasun ohiturak bereganatuz eta ekimen eta ekintza propioak eta harreman afektiboak ere garatzeko gai izanik.

ETAPAREN BEREZITASUNEN ARTEAN, IKASLEAK JARDUERETAN IKUSPUNTU EZBERDINAK ERRESPETATUZ PARTE HARTZEN DUELA ETA DAGOZKION ERANTZUKIZUNAK BEREGANATZEN DITUELA NABARMEN DITZAKEGU.

Bai eta, elkartasunezko harremanak lehenetsiz, sineste, arraza, genero edo bestelako bereizketak ere baztertzeko ikasiko duela.

Komunikazioari dagokionez, ikaslea ahozko eta idatzizko mezuak ulertzeko eta sortzeko gauza izango da, euskaraz nahiz gazteleraz, eta, maila xumeagoan, baita ingelesean ere, era honetan euskaldun eleaniztunak sortuz.

Lehen Hezkuntzan zehar Ikastolen Elkarteak Euskal Herri osoaren ikusmirarekin sortutako bi metodologiak garatzen ditugu: Lehenengo Zikloan, 1., 2. eta 3. mailan, KIMU metodologia eta Bigarren Zikloan, 4., 5. eta 6. mailan, EKI metodologia. Abiapuntu akademiko batetik haratago, bi metodologia hauek bere osotasunean hartzen dute, eta aprendizaia ikuspegi eraikitzaile batetik abiatzen dutela azpimarratu behar dugu.

Lehenengo Zikloan, hala nola, KIMU metodologiak Haur Hezkuntzan jarraitzen den bidearekin bat eginez eta Bigarren Zikloan berriz, EKI metodologiak DBHn jarraitzen den bidearekin bat dator, digitalizazio munduan aurrerapauso handia ekarriz.

Bi metodologia hauek, kompetentzien garapenaren bidez, ikasleak bizitzarako egoera eta eremu guztietan eraginkortasunez prestatzen dituzte.

Honek konpetentzietan oinarritutako kontzeptio didaktikoaren aldeko hautua egitea suposatzen du eta ikaslearen irteera-profilean ardatz duen curriculumma du “ipar eta gailur”.

Gure ekintzen artean baditugu euskararen erabilpena bultzatzea, harremanak sendotzea... eta euskal kultura bizitzea helburu duten irteera eta barnetegiak ere.

Lehen Hezkuntzan zehar beste hainbat proiektu berritzaile bultzatzen ditugu, ikasleak bere egunerokoan bidelagun izango dituenak. Kontzientzia Fonologikoaren bidez, ikaslea irakurketa-idazketa prozesuan laguntzen dugu. Lehen Hezkuntzako 4.maila bukaeran, ekainean, Warming English (ingeleza berotzen) programa garatzen dugu jatorrizko ingeles hiztunak diren irakasleekin.



Etapa osoan zehar Finlandiako Turtuko Unibertsitateak sortu eta garatutako eskola-jazarpenaren aurkako KiVa programa aplikatzen dugu. Horrez gain ikasle aniztasunari edo geletako kopuruei aurre egiten laguntzeko indartze neurriak garatzen ditugu laguntza orduekin, 2 irakasle gelan edukiz edo arlo batzuetan 2 geletatik 3 ikastalde sortuz.

Ingelesa, Gorputz Hezkuntza eta Musika (LH4. mailatik) jakintzagaiak irakasle espezialistek ematen dituzte eta 5. eta 6. mailatan adibidez bertsolaritza lantzeko programa espezifikoa, bertsolari batek gidatuta, dugu. Bestetik eskola esparruan Audioko Udalaren arlo ezberdinek garatzen dituzten sexu heziketarako edo biolentziaren prebentzioa interneten lantzeko, Bakeola, ekimenak lantzen ditugu.



DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA - DBH

12-16 urte





HAUR HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	DERRIGOR. BIGARREN HEZKUNTZA	BATXILER GOA
0-6 URTE	6-12 URTE	12-16 URTE	16-18 URTE

6-7 URTE	7-8 URTE	8-9 URTE	9-10 URTE	10-11 URTE	11-12 URTE	12-13 URTE	13-14 URTE	14-15 URTE	15-16 URTE
LH1	LH2	LH3	LH4	LH5	LH6	DBH1	DBH2	DBH3	DBH4
1. zikloa			2. zikloa						
DERRIGOREZKO LEHEN HEZKUNTZA						DERRIGOREZKO BIGARREN HEZKUNTZA			

GINARRIZKO HEZKUNTZA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN, EUSKAL CURRICULUMA GINARRI IZANIK, HAUR HEZKUNTZATIK HASI, LEHEN HEZKUNTZAN JARRAITU, ETA ETAPA HONETAN ERE

HEZKUNTZA EREDU BERRITZAILEA PROPOSATZEN DU IKASTOLAK. 12 ETA 16 URTE BITARTEKO 4 IKASMAILATAN ANTOLATZEN DA.

LAUDIO IKASTOLAK, BIZITZAKO EGOEREI AURRE EGITEN DIEN PERTSONA KOMPETENTEA HEZTEKO, IKASLEA BIZITZAKO EGOERA KONPLEXU ETA ESANGURATSUEI IRTENBIDEAK BILATZEN JARTZEN DU.

Aurretik dakienaz gain, ezagutza berriak eskuratzen ditu eta horietan trebatuko da. Azkenik, ikasi eta menperatu duen hori guztia modu integratuan mobilizatuz, egoerari irtenbidea emateko. Horri Integrazioaren Pedagogia deitzen zaio, eta 12-16 urte bitarteko etapa honetan lantzen da.

Ikasleak behar duen material guztia plataforma digital baten izango du, Ikastolen Elkartek sortu duen “Ikasgunea” plataforman, alegia. Ikasle bakoitzak bere ordenagailu eramangarria izango du tresna nagusitzat.

Laudio Ikastolak Lehen Hezkuntzako azken ziklotik hasi eta DBHn ere EKI egitasmoarekin egiten du lan azken urteotan. Ikastolen Elkartearen egitasmoa da EKI, eta ikastolak horren aldeko hautua egin zuen, izan ere, ikasleek konpetentziak lantzen dituzte eta bizitzako egoera errealetarako prestatzen dira. Lanketa, oro har, euskarri digitalean egiten da.

Honen adibide bezala, 2021-22 ikasturtean, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza abiaraziko dugu. DBHko 1. eta 2. mailan eremuka arituko dira (bi eremutan: soziolinguistikoan eta zientifiko-teknologikoan); eta DBHko 3. eta 4. mailan, aldiz, diziplinarteko lana egingo da.

**IRAKASKUNTZAK ETENGABEKO BERRIKUNTZAK
ESKATZEN DITU ETA IDEIA HORREKIN ARITU
IZAN GARA BETI LANEAN; UNE HONETAN ERE
HORRETAN GABILTZALARIK; ETA, NOLA EZ,
ETORKIZUNEAN ERE HORRETAN ARITUKO
GARENAREN SINESMEN OSOA DUGULARIK.**





BATXILERGOA

16-18 urte





HAUR
HEZKUNTZA

0-5
URTE

LEHEN
HEZKUNTZA

6-12
URTE

DERRIGOR.
BIGARREN
HEZKUNTZA

12-16
URTE

BATXI
LER
GOA

16-18
URTE

BATXILERGOAN, LAUDIO IKASTOLAREN AURREKO 16 URTETAKO IBILBIDEARI JARRAITUZ, HEZKUNTZA INTEGRALA GARATZEN JARRAITZEN DUGU. IKASLEARI ARLO AKADEMIKOA ETA PERTSONALA LANTZEKO AUKERA ESKAINIZ.

Horretarako ezinbestekotzat jotzen dugu orientazioa, bi norabidetan garatzen dugularik. Batetik tutoretza orduak antolatzen ditugu ikaskuntzan zein eremu pertsonalean suerta daitezkeen gorabehereri irtenbidea ematen ahalegintzeko. Eta bestetik, orientabidea bera, hezkuntzakoa, bokazioaren ingurukoa, pertsonala edo familiarra landuz.

Ikasleek gero eta autonomia handiago garatzea da Laudio Ikastolaren asmoa. Horretarako ikaslea subjektu aktiboa bihurtzen dugu, ikaslea bera izanik bere ikaskuntzaren protagonista. Irakaslea laguntzailea da eta ikasleari ikaskuntza antolatzen, errazten eta gidatzen laguntzen dio.

Informazio eta komunikazio teknologiak dagoeneko badira ikasleen zein irakasleen tresna nagusia. Arlo gehienetan informazio eta komunikazio teknologiak erabiltzen dituzte kompetentziek eskatzen duten IKTen erabilera egokia, eraginkorra eta arduratsua egiten ikasteko eta herritar digital arduratsua izaten ikasteko.

Laudio Ikastolako batxilergoak, Zientzia eta Teknologia, Giza Zientzia Giza eta Gizarte Zientziak modalitateak eskaintzen ditu.





ORIENTAZIOA

IKASLE, GURASO, ETA IRAKASKUNTZAKO PROFESIONALENTZAKO ORIENTAZIO TALDEA

IKASLE GUZTIEK HEZKUNTZA JASOTZEKO ESKUBIDEA IZANIK, IKAS KOMUNITATEA OSATZEN DUGUN PERTSONA OROREN ANIZTASUNA (IZAERA, PENTSAMOLDE) KONTUTAN HARTUKO DUGU, IKASLE BAKOITZAK BERE IKAS IBILBIDEAN AGERTZEN DITUEN LEHENTASUNEI ERANTZUNA EMANGO DIELARIK.

Inklusibitatea ardatz izanda, ezinbestekoa da eskola mailan zenbait neurri orokor hartzea. Hala nola, planteamendu curricular bateratua, eskolako antolaketa eta metodologiaren inguruko adostasunak hartzea, espazio fisikoak antolatzeko era desberdinak, denboralizazioaren malgutasuna, e.a.

HEZKUNTZA-NEURRI OROKORRAK

neurri arruntak dira, curriculumak, metodologiak, antolaketak, taldekatzeak, materialak, baliabideak eta ikasgelako giroa doitzeari buruzkoak, ikasleek oinarrizko konpetentzien garapen orekatua sustatu nahi dutenak.

HEZKUNTZA-NEURRI ESPEZIFIKOAK

talde-neurriak edo/eta pertsonalizatuak izan daitezke. Talde-jardun espezifikoak antolaketa eta metodologia neurriak dira, talde edo/eta ikasle jakin batzuen beharrei erantzun nahi dietenak, jardun horiek ikasgelako programazioan txertatzen laguntzen duten estrategiak barruan hartuta. Aldiz, jardun espezifiko pertsonalizatuek ikasle baten behar zehatzei erantzuten diete, neurri orokorrak aski izan ez direnean eta, talde arruntaren barruan antolatzen dira ahal den guztietan: arreta pertsonalizatua ziurtatzea, etapa bakoitzeko irteerako profilean ezarritako konpetentzia-maila ahalik eta gehiena garatzeko norberarentzat ikas ibilbide egokiena hautatuz.

LAN EREMUAK

HH - BATXILERGORA (0-18 URTE BITARTEAN)

1.- AHOLKULARITZA PEDAGOGIKOA

-IRAKASLEAK: taldea trinkotzeko dinamikak, irakaskuntza partekatua, banaketa heterogeneoak, baliabideen kudeaketa malgua, laguntza emateko programak, jardun pertsonalizatuaren antolaketa, interbentzio pedagogiko desberdinak (kanpoko profesionalen interbentzioak)...

-GURASOAK: ikaste prozesu eta egoera pertsonaletarako aholkularitza, formazioa, guraso eskolak...

2.- HEZKUNTZA LAGUNTZA BEREZIA BEHAR DUTEN IKASLEAK

-Hezkuntza premia bereziak (ez gaitasuna eta jokabide nahaste larriak).

-Ikasteko zailtasunak (hizkuntza atzerapena, adimen-atzeratasuna, arreta gabeziak, irakurketa eta idazketa zailtasunak, kalkulurako zailtasunak etab.).

-Gaitasun Handikoak.

-Hezkuntza sisteman ohi baino beranduago sartu direnak.

-Eskola ibilbide edo baldintza pertsonal bereziak (osasun arazoak, gizarte-bazterketako arriskuan egotea, eskola porrota).

-Desberdintasun sozial egoerak.

3.- DBH ETA BATXILERGO ONDORENGO IKASKETEI BURUZKO ORIENTAZIOA

- Irakasle, ikasle eta gurasoentzako aholkularitza.
- Orientazio saio bereziak .

4.- IKASTETXEKO BIZIKIDETZA

Ikas komunitatea osatzen dugunon arteko bizikidetza giro egokia (arazoen prebentzioa, identifikazioa eta eskuhartzea).

5.- BERRIKUNTZA PEDAGOGIKO ETA METODOLOGIKOA

Hezkuntza berritzeko proposamenak eta proiektuak.

FUNZIONAMENDUA

-Ohiko eskola jardunean eragiteko ikas komunitatearekin batera elkarlana (ikasle, irakasle, hezkuntzan laguntzeko espezialistak, ikastolako ez dozentek, Hezkuntza Saileko langile espezifikokoak, kanpoko profesionalak), curriculumarekin lotutako antolaketa diseinatzeko (ordutegien diseinua, taldekatzeak, neurri espezifikokoak...)

-Ikasleekin ohiko esparru eta espazioetan lan egiteko lehentasuna, banakako interbentzioak eta interbentzio bereizituak aproposak direnean.

-Gurasoekin elkarlana tutoreekin batera seme-alaben garapen pertsonalerako eta ikaste prozesuaren ibilbidea zehazteko.

-Zuzendaritza Taldearekin elkarlana: berrikuntza pedagogikoa, bizikidetza, adin tarte espezifikoen planifikazioa



من اليوم وادعيت للصلاة وحين انصرت
من الغداش ثم ادعيت الى الصيام
نيابتي المدرسية و
ثم ادعيت لمشاهدة
من البيت .

Ni ilyoos dal



EUSKARA

Euskara murgiltze ereduan eskolaratzen dira haurrak, euren jatorrizko hizkuntza zernahi delarik ere.

EUSKARAZ BIZI

Euskararen murgiltze ereduari esker, ikasleen euskarazko erreferentzia gehienak ikasgela barrukoak zirela konturatu ginen. Ikasgelatik irtetean, herrian, hedabideetan edota aisialdian erdara da nagusi. Horretaz ohartuta, Euskaraz Bizi proiektua sortu zen, Argitxok irudikatzen duena. Ikasgelatik kanpo euskararen erabilera bultzatzea eta ikasleen motibazioa areagotzeko hainbat kanpaina eta ekintza (Euskararen eguna, Olentzero ospakizunak, Agate Deuna, Inauteriak...) antolatzea dugu helburu. Honetarako gurasoekin elkarlanean aritzen gara, KRISKITIN euskara guraso taldearen bitartez.

AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA

kontseiluan parte hartze aktiboa du ikastolak, aiaraldeko euskararen normalizazioaren alde urratsak ematea baitu helburu. Euskararen alde urratsak eman nahi dituzten eragile zein norbanakoen bilgune iraunkorra izatea nahi du kontseiluak, egiten den lanaren eraginkortasuna bilatzen, gogoetarako foroa osatzen, estrategiak diseinatzen eta gauzatzen laguntzeko euskarriak sortzen, erreferente izaten eta instituzioekiko eta entitate ezberdinetako interlokuzio aktiboa izaten.

HNP - HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO PROIEKTUA

Laudio Ikastolak HNPN ere parte hartze zuzena du. HNP Aiaraldeko hezkuntza zentroen zein Udalen euskararen foroa da. Gure herrian eta eskualdean euskararen erabilera handitzeko asmoz modu koordinatuan lan egiten hasi ginen, 2014-15 ikasturtean, Aiaraldeako ikastetxe, ikastola zein Udalak. Urtean hiruzpalau bilera egiten dira foro honetan, helburua euskararen alde hezkuntzan modu koordinatuan lan egitea delarik: ekintza komunak antolatuz, ikerketa-lanak bideratuz... Foro honek harreman zuzena du Euskalgintza Kontseiluarekin.

EUSKARA BATZORDEA

Euskararekin batera euskal kulturaren transmisioa ere bada gure curriculumaren helburua. Hori dela eta irakasle talde bat elkarlanean aritzen da ikastolako partaide guztiei aukera eta eskaintza ezberdinak lantzeko.



ELEANIZTASUNA

LAUDIO IKASTOLAN IKASLE EUSKALDUN ELEANIZTUNAK SORTU NAHI DITUGU

Ikasleei eskaintzen diegun hezkuntzaren bitartez euskaldun eleaniztunak sortu nahi ditugu. Zentzu horretan Audio Ikastolan euskara da lehen hizkuntza, bai irakaskuntzarako bai komunikaziorako ere. Horrek honako hau dakar:

EUSKARAN MURGILTZE EREDUA

Ikasleak ikastolan matrikulatzen direnean, euskara murgiltze ereduan eskolaratzen dira, euren jatorrizko hizkuntza zernahi delarik ere. Beraz, beste hizkuntzen irakaskuntza alde batera utzita, jakintzagai guztiak euskaraz ematen dira eta, era berean, jakintzagai guztietako irakasleak, bakoitza bere neurrian, hizkuntza irakasleak dira.

GAZTELANIA ETA HIZKUNTZA ATZERRITARRAK

Ingelesaren irakaskuntza 4 urterekin abiatzen da, Ikastolen Elkarteko eleanitz-english proiektuaren bitartez. DBHko bigarren zikloan ingelesaren bitartez Gizarte Zientzien edukiak lantzen dira.

Gaztelaniaren irakaskuntza formala, arlo espezifikoko baten bitartez, Lehen Hezkuntzatik aurrera abiatzen da.

Frantsesa DBH 2. mailatik aurrera eta Batxilergoan eskaintzen da aukerako jakintzagai moduan.

IKUSPEGI METODOLOGIKOA

Hizkuntza guztien irakaskuntza metodologia komunikatiboen bitartez gauzatzen dira, Ikastolen Elkartek garatutako ikasmaterialen bitartez, nagusiki.

Euskararen irakaskuntzaren bidez hizkuntzaren ezagutzan ez ezik, berarekiko motibazioan eta erabilpenean eragin nahi da. Azken batean, euskaraz mintzatzeko gai diren pertsonak ez ezik, euskaraz mintzatu eta euren burua euskalduntzat hartzen duten pertsonak sortu nahi ditugu.

Gure ikasleek Lehen Hezkuntza eta derrigorrezko eskolaldia amaituta Europako erreferentzia markoari dagozkion ondorengo mailetan zehazten diren gaitasunak eskuratzea da gure Ikastolaren helburua:

LH AMAIERAN.-

EUSKARAZ	B1
GAZTELANIAZ	B1
INGELES AZ	A2
FRANTSESEZ	--

DBH AMAIERAN.-


EUSKARAZ	B2
GAZTELANIAZ	B2
INGELES AZ	B1
FRANTSESEZ	A2

Hizkuntzen irakaskuntzari ezarritako helburuen lorpena egiaztatzeko eta hobetzen lagunduko diguten ondorioak ateratzeko, aldiro-aldiro neurketak erabiliko ditugu: kanpo frogak (Ikastolen Elkartearenak zein bestelakoak), erabilpenaren neurketak eta abar. Hortik ateratako datuak zein alderaketak oso baliotsuak zaizkigu apendizai prozesuan behar diren egokitzapenak egin ahal izateko.

Gure Ikastolaren hezkuntza eskaintzan Batxilergoa ere badugu. Etapa hau amaitzen duten ikasleek honako hizkuntza helburuak lortzea espero dugu:

BATXILERGOAREN AMAIERAN.-

EUSKARAZ	C1
GAZTELANIAZ	C1
INGELES AZ	B2
FRANTSESEZ	B1





IKASTOLA JASANGARRIA

LAUDIO IKASTOLAK INGURUMENAREKIKO BEGIRUNEZKO BALOREAK ETA GARAPEN JASANGARRIA BULTZATZEA HELBURUTZAT DUEN “ESKOLA AGENDA 2030” EGITASMOAREKIN ORAIN DELA URTE ASKO LERROKATU ZEN, HELBURU ZEHATZ HONEKIN: IKASTOLA OSORA NATURA BALIABIDEEN ERABILPEN ARDURATSUAREN KONTZIENTZIA HEDATZEA.

2011ko ekainean Eskola Jasangarriaren ziurtagiria jaso genuen. Aitorpen hau ez da Ikastolarentzat helburu bat eta kontzeptu hori alde batera utzi eta gainditzea erabaki genuen. Horren ordeztu IKASTOLA JASANGARRIAREN ideia hedatu nahi dugu.

Ikastolako Irakasleen Klaustroak urterik-urte, pausuz -pausu, Ikastola jasangarritasunerantz bideratzeko konpromisoa hartu du, gerora Ikastolako Batzar Orokorak ere berretsi duena. Hortaz, Laudio Ikastolan ikasle zein familiek jasangarritasunaren kontzeptua euren gaitasunetarako ahalegin nekaezinean ari gara etengabe.

AGENDA 21ETIK AGENDA 2030ERA

Aurten trantsizio-urtea izango da eta “Agenda 21” izatetik, “AGENDA 2030” izatera pasatu gara.

